

JESUS-I.



*Artzayakin batera.
Belenera zuzen,
Jesus adoratzera
Goazen, goazen, goazen.*

Aingeru bat zerutik
Dator diyoala,
Jainko gizon-egia
Gaur jayoa dala,
Artzayak aditzean
Sinisturik ala,
Badijoaz aurraren
Billa bereala.

Artzayakin...

Millaka aingeruak,
Or datoz kantari
Gloria zeruetan
Gure Jainkoari,
Eta lurrean berriz
Pakea ugari,
Gizon borondatea
Ona dutenai.

Artzayakin...

Artzayak billa dira
Bereala joaten,
Belen ondoan ara
Zer arkitzen duten,
José eta María
Estalpe zar baten,
Eta aur bat erruki
Duena ematen.

Artzayakin...

Estalpe ortan aska,
Ta askan lastoa,
Lasto-gañian aurra
Gañoa oztua,
Arnasaz berotzeko
Idi ta astoa,
Ara nola dagoen
Justuen Justua.

Artzayakin...

Eguzkia diruri
Bere arpegiak,
Izar eder bi berriz
Aur orren begiak,
Zeru chiki bat dute
José ta Mariak
Belengo estalpian
Arkitutzen biak.

Artzayakin...

Jesus adoratzera,
Alik eta lenen,
Etorririkan gaude
Gu oraiñ Belenen,
Zuretzat ar-gaitzatzu
Oraiñ Jesus emen,
Eta gero betiko
Zeruetan Amen.

Artzayakin....

PEDRO MIGEL URRUZUNO-KOA.

